

SANTI BROUARDEKIN, HASI-REN KONGRESOAREN ONDOREN



I. ZUBIONDO

Lan zaila jartzen dio prentsak ezker abertzaleari. Hainbeste aldiz esan diote bati batzuei lana eta erantzunak errezegi jartzen dizkien bezala, beste gogorregi erasotzen diela; eta azkenean galderetan belarria gehiegi irakutsiko ote duen beldurrez joaten da. Ez alferrik. Txomin Ziluaga eta Santi Brouardek Bilbon eman duten prentsaurrekoa ikusi... zabala dela euskal prentsa, jaun andreok. Prentsa aurreko horretan zenbait kazetariri ikusitako odol gaitorik ez dugula gure artean ezagutu.

Kongresua egin du HASI alderdiak. KAS blokeko beste indarrek egingo dituzten Biltzarre Nazionaletan jarraipen izanen duena. Eta HASIko lehendakari berriro aukeratu duten Brouardengana jo dugu. Abertzale haundi bat kausitu dugu, iraultzaile bat. Bere Lekeitioko euskarari eusten dion euskaldun bat. Beste batzuek gorrotoa hain garbi azaldu badiote, zergatik ukatuko dugu Santi Brouard barneraino iritsi zaigula? Gizon haundi bat aurkitu dugu, benetan. Irailaren 27-an.

ARGIA.-Zuen linea politikoa zehazten duen ponentzian obrero klaseaz eta langileriaz mintzo zarete. Hizkera hau ez da asko erabilia azken garaioan.

Santi Brouard.- Prozesua aurrera langileek eraman behar dutela uste dugu. Baina sarritan historia ez da horrela izan. Lenin ez zen langile bat, Marx ere ez, Castro ere ez, ezta Che Guevara ere. Helburutzat jartzen badugu langilearen helburuak aurrera eroatea, berdin zaigu beste klase batekoa bada; eta alderantziz ez digu balio langile batek burgesiaren alde ari bada. Garrantzi haundia dauka honek, sarritan esaten bait da «Herri Batasuna interklasista dela». Egia da, bai HB interklasista da, PNV interklasista den legez. Baina klase guztiak langile direkzioaren pera eramateko gara interklasistak gu; besteak interklasistak badira langileak burgesiaren egin-dupera eramateko da. Ni ez naiz langilea (medikua da Santi), baina nere helburua langile posizioak defendatzea da.

A.-Ponentzian krisi ekonomikoa sakon eta estrukturaltzat daukazue. Ez al duzue ikusten posible sistemak bere zuloak ongi partxeatzea eta oraindik ere denbora luzez irautea?

S.B.-Orain lau urte egindako kongresuko analisiak ontzat hartu ditugu, historia horrela izan delako. Duela zazpi urte alderdia sortu genuenetik, HASIn ekonomia sakontzen dutenek esaten zuten krisi hau ez dela koiunturara, egituretakoa dela. Eta horrela izan da eta da orain arte. Petroleoaren gorabehera horiek aipatzen dituzte krisia esplikatzeko partez, baina arazoak sakonean daude. Ari dira, bai, partxeak jartzen, baina zulo bat estaltzeko beste leku batean egiten dute beste zulo bat.



Orain, egoera honek zenbat iraungo du? Ez dakit. Kapitalismoaren bidea ahalik eta partxe gehien jartzea da, agintean denborarik luzeena, irauteko. Aldaketa? Baliteke ni bizi naizen artean ez ezagutzea, baina arinago edo mansuago gauzak horruntza doaz. Ez krisi ekonomikoan bakarrik baita internazionalen ere. Pentsa ezazu zenbat herri ari diren askatzen, gogoratu garai beteko ingeles inperio hura-eta. Eta herri barruetan ere iraultzaileak ari dira gobernua jartzen gero eta gehiago. Martxa hori ez da geratuko askatasuna lortu arte, politikoa eta soziala.

A.-Krisi ekonomikoa aztertzerakoan ikuspegi oso determinista bat egon zen une batean, krisia sakondu ahala lehertuko zen momentu bat helduko zela. Orain berriz, langabezia sinistezinezko kota batzuetaraino iritxi da eta hala ere ez da lehertzen. Sorpresarik hartu al duzu, sistemak dena asimilatzen duela alegia?

S.B.-Gutxitan gertatu da langabezia iraultzaileak gehitzea. «Caldo de cultivo» bezala ona da langabezia, norbaitek erabili behar du hori, alder-

«Sistema ari zaio krisiari partxeak jartzen. Baina zulo bat esaltzeko beste bat egingen du».

di politikoak edo erakunderen batek, baina ez sekula berez. Beste herrietan hala izan da, eta Euskal Herrian ere bai. Hemen gainera ez da egon ohitura politikorik, eta piskanaka sartu behar da buruetan.

Itxaropen momentuak dira orain arte. Franco jausteak askatasun gehiago ekarriko zuela uste genuen, baina ez zigun ekarri. Eta hala ere esperantzak jarraitzen zuen. Gero UCD etorri zen, amnistia zati bat behinik behin, eta jendeak esperantza horrekin borroka apaldu egin zuen. Borrokarik gabe zerbait lortuko duela uste badu, borrokarik atzera egiten dio pertsona batek, eta hori normalizat jotzen du. Baina horko bidetik ezer ez datorkiola ikusten duenean orduan

hasten da berriro borroka hasi nahiean.

Horretan lana oso ondo egiten du Espainiako podereak. Lehenengo UCD-ek esperantzatxo bat, eta joan da piskuz behera. Orain PSOE horretan gezurraz sartu da, prestijio handia daukalako; edo euki du, eta UGT langile mailan. Baina etorriko dira ikusten hori ez dela bidea. Orduan etorriko da gure gorakada.

Asmatuko dute beste zeozer itxaropena sortzeko langileen artean. Baina langileria azkenean gure bidera inguratu behintzat egingen dela uste dut.

A.-Beste behin ere galdetu dizute eta erantzun duzue nola kontsideratzen duzuen HB-ren boto galera. Hala ere gauza batek badirudi argi: orain dela bost urte ezker abertzaleak erakusten zuen hejemonia hura ez duela, PNV-k indar handia hartu duela.

S.B.-PNV eta beste alderdi batzuek beren kideei ez diete gauza askorik eskatzen, nahikoa da botoa ematea, izparringiak eta aldizkariak erostea eta gutxi gehiago. Normala da jendeak horrelako bidetik lortu nahi izatea gauzak bide horretatik guk eskeintzen

dugunetik baino. Baina hortik etsipena etorriko da. Argi dago eta estatutoak ez duela ematen guk nahi duguna.

Lekeition edadeko pertsona asko ezagutzen dut, betidanik PNV-koak izan direnak, eta oraindik ere direnak. Eta gogora erazten diet heuren irakutsi zidatela «eta tiro eta tiro beltzari»; esaten diet «orain tiroak ez dira onak, baina orduan tiroak onak ziren, zuek botatzen zenituztelako». Eta hau ere ikasia nien «no queremos estatuto, ni tampoco autonomia, queremos la independencia que quiere la mayoría». Hori esaten diedanean atzera egiten dute, «bai egia da, baina beste egoera bat zen...».

Jendeak ulertuko du ondo PNV-ek bere lineatan ez daukala biderik; estatutoak eta amejoramiento horrek ez daukate irtenbiderik, hor amaituko dira. Orain, hasten denean jendea ulertzen PNV-ek eskeini zizkien bideak ez direla egokiak, ez dira etorriko guregana etxean geratuko dira asperuta, minduta, bidea ez dela izan ona. Guk lehenengo beste alderdiak ma-

«Lekeitioko PNVko zaharrei gogora erazten diet nola erakutsi zidaten txikitari «no queremos estatuto ni tampoco autonomía, queremos la independencia que quiere la mayoría».

kaldu egin behar ditugu, eta jende berria gureganatu. Beste horietatik batzuk etorriko dira, baina gehienak ez. Jende berria gureganatu. Holan ikusten dut bidea, ez urte; hurbil ez da, bide luze eta latza da, baina bidea da.

A.-KAS aipatzen da eta HB. KAS abanguardiarago, gogorrago, iraultzaileago; eta HB teoriarik behintzat askoz ere zabalago izan beharko lukeen zerbait. Erreza al da biak artikulatzea?

S.B.- Ez da izan, eta zatiketa bat suposa izan du. HB sortu zenean lau alderdi ziren, eta inguruko jendea. Baina prozesu batean alderantziz izan behar duela konturatu gara, ardura gehiago behar duena mundu guztia dela. Eta barruan dauden alderdiek,



edo KAS edo beste egitura bat besteak eramaten aurrera. Ez zuten hola ESB eta LAIA-k, eta alde egin zuten eta desagertu egin dira. Bama ANV eta guk hola ulertu dugu. Ezin dela iraultza bat egin ez arma hutsez ez alderdi hutsez, derrigorrez multzorik haundiena eduki behar dela inguruan. Hori ontzat hartu dugunean, nahita podere zatiak utzi ditugu besteengan.

HBn lehengo egitura alderdi bakoitzak launa kide zituen Mahai Nazionalan. Alderdietakoak hamasei, beraz, eta independienteak ez ziren hamabi baino. Orain herrialde guztietakoak etorriko hogen eta hamar bat bagara eta alderdi bakoitzekoak bi edo hiruna.

A.-Udal mailan hartzen duzue parte,

instituzioetan. Eta hor desorganizazio itxura bat ematen du HB-k. PNV ikusten duzu eta hor egitura planifikatu bat nabari da. HB-ri aldiz askotan aurpegiatu zaio desorganizaturik egotea.

S.B.- Neurri batean egia da, baina desorganizazioa gehiago nabari da minoria garen tokietan. Oneretan une batean udala gure eskuetan eduki dugu eta hobeto funtzionatu duen beste herririk ez da izan. Berdin esango nizuke Hernanin, berdin Laudion. Agintea eskuetan duzunean zure linea eraman zenezake, eta orduan hobeto organizatzen zara, edo horren antza ematen da. Podererik ez duzunean ezin duzu denuntzia besterik egin ia eta herri bakoitzean hango baldintzen arauera.

Beste alde batetik hola da. Guk Unidad Popular egin nahi dugu, HB baino zabalago, beste taldeak ere sartuz, nahiz ekologistak, nahiz antinuklearrak, ... Derrigorrez horretarako egitura zabalagoak behar ditu, ez hain lotuak; erantzun desberdinak ematen dira horrela. Baina hori derrigorrezko erru bat da, eta ontzat ematen dugu. Gauza oso finkatu bat egingo bagenu ez litzateke Unidad Popular izango, alderdi bat izango litzateke; eta ez dugu hori nahi inondik ere.

A.-Ezker abertzaleari goraka egiteko garaia helduko zaiola diozu. Baina oraingo egoera ez da hori: ezker abertzalea isolaturik agertzen zaigu. Nazio askapen mugimendu batek, irabazteko, herriaren gehiengoa berakin egotea behar du, edo gehiengoa kontra ez edukitzea behintzat. Ez al zaizu iruditzen ETA-ren aurkako borroka, ZEN planekin eta fruituak ematen ari dela?

S.B.-ZEN planak ez du fruiturik eman, lehen ere izan da ZEN plana. Orain egitura bat ipini dute, eta txarraren zera da: dirua jarri dutela mahai gainean. Beste guztia lehendik ere erabili izan dute. Baina ZEN plana ez dago ETArekin aurka egina, herriaren kontra dago egina. Hamabost mila milioi dituzte bost urtetan gastatzeko. Horietatik zazpi mila milioi egiura fijosarako. Bost urtetan ez dute ETA desgingo, baina desgingo balute ere oso gastu txarra izango litzateke: zazpi mila milioi egitura estable batzuentzako? Ez, ZEN plana herria zapaltzeko dago egina. Tanketak ekarri zirenean, inork ez du sinesten ETA-ren kontra ekarri zituztenik, tanketekin ez dira detenitzen ETA-ko militantek. ETA-ren aitzakiaz langileen manifestazioak zapaltzeko irten dute.

Orain, gero eta hobeto ari dira gauzak egiten, gero eta estuago jartzen gaituzte. Prentsa askatasuna haien zat badago eta guretzako ez. Zuk ez badidazu zure izparringian idazten uzten eta zu zara haren jabe, nik ez daukat prentsa askatasunik; irratian berdina, telebistan zer esanik ez. Oso borroka gaitza da. Guk medio berri batzuz sortu behar ditugu, derrigorrez. Irudimena erabili behar dugu, gehiago eta akaso berriro hasi beharko dugu lehen erabiltzen ziren gauzei ekiten, oktobilak eta beste. Baina beste alde batetik ZEN eta historia horiek hau ere esan nahi dute: indar haundi bat daukagu, bestela noren kontra joateko antolatzen da holako indar haundi bat?.

A.-Politika ahal denaren artea dela esan ohi da. Eta edozein bideri edo alternatibari posible den edo biabile, begiratu behar zaiola bistan dago. Asmo antzu baten atzetik odol putzura goazela zioskun batek joan den astean.



«Tanketekin ez dira detenitzen ETA-ko militantek. ETA-ren aitzakiaz langileen manifestazioak zapaltzeko irten dute».

S.B.-Politikaren definizio hori ez dut ontzat hartzen. Beren askapenerako borroka egin duten herri guztietan politika zera da: gaur ezinezko dirudiena, bihar posible izan dadin kondizioak jartzea. Bestea oportunitasoa da, eta egoeraz aprobetxatzea. Politika ez dugu ulertzen errealitatearen analisi bezala errealitatearen aldaketa bezala baino. Esaten badidate Euskal Herriaren eskatasuna ez dela posible hau gogoraerazi beharko dut: gogoratzeko batxiler ikasitako liburuetan zenbat estatu izaten eta ea zenbat dauden orain. Zenbatak sortu zuten Nazioen Elkarte hura eta gaur egun zenbat diren. Sei aldiz behintzat biderkatuko zen, hogeita hamarren bat hasi baziren, egun ehun eta berrogeitik gora izango dira. Hizketan ari garen bitartean akaso beste herriaren batek eskeratu du askatasuna. Ezinezko dirudiena posible bihurtzea, hori da politika; eta mundu guztian, bestela ez genuke ezer egongo, inoiz.

A.-PNV-ko batekin ari garelarik ezker abertzaleaz galdetu ohi diogu beti. Zurekin alderantziz egin beharko dugu. Nola ikusten duzu PNV-ren prozesua?

S.B.-Askotan esaten nion Monzoni, berak ez zuen hori uste hasiera batean: lehengo PNV-ko abertzaletasuna ez

da oraingoa bezalakoa. Gurea bezalakoa ere ez zen, ezta sakona zenean ere, gero eta gehiago agertzen da hori. Bai Ortzik eta bai beste batzuek orain dela sei edo zazpi urte, gure mitinetan erabiltzen genuen gaia zera zen: zelan gure kulpaz PNV-k eskuineratu egin behar duela, derrigorrez espainoldu egin behar zuela. Hola gertatu da. PNV sortu zenean fueristak, karlistak ziren, eta PNV-ren indarragatik karlistak gutxika edo arinka espanoilerako zuten. Hemen ere berdin da: abertzale bezala sakonki gu bakarrik gertuko gara azkenean. Ez dakit zenbat denboran, zelako prozesuan.

Markos Vizcaya-k esan du egunotan parlamentuan «que no cuestiona la unidad de la patria española». Hori HASIkoa edo HB-koa balitz kategoririra lihoake berehala. Geldi-geldika PNV urruntzen ari da lehengo baseek pentsatzen zutenetik. Heuren tartean egongo direla...? Ez dakit. Ez zait gustatzen basea eta burua eta bereizketa hori, hola da baino. Baina basea ere espainoldu egin dira batzuk, eta behintzat ontzat hartu. Espainiako bandera eta gehiago Francorena, ontzat hartzea garai bateko PNV-en ez zen ezta ametsetan ere pentsatzen. Eta banderak ematea Guardia Zibil horiei eta.... hori birau bat zen, blasfemia bat.

A.-Aldaketa horiek zer delata ari dira gertatzen.

S.B.-Interklasismoaren arazoa dago hor. Goiko mailako PNV, agintaria, oso lotuta daude burgesiari eta diruaren mugimendu internazionalari; diruaren bidez beste egitura batzuei loturik daude eta geldi-geldika eroan egiten dituzte. PNV barruko bat baino gehiagori galdetuz gero ea nahi duten, barrutik, Euskadiren askatasuna, barrutik ez lukete nahi izango, lotura batzuz dituztelako beste esturktura batzuekin, lotura ekonomikoek-eta eramaten dituztela.



A.-Prentsaurrekoan PSOEn indarra eta desgastea aipatu dituzue, estatu mailan batez ere. Baina PSOE-k hemen ere badu indarra, Bilbon eta oso garbi. Eta abertzaleak lanean ari bagara horiek ere gogor ari dira. Horrela kanpotik etorritako jendearen arazora heldu gara.

S.B.-Borroka zikin batean sartu delako irabazi du hemen PSOE-k. Gure etxean hartu dugu guttun bat andaluziako alkate batek idatzia, «euskaldunek izorratu nahi zaituzte hangoa ez zarenori» eta holakoekin; nire emaztea Aldamiz Mendiguren da, Manilan jaioa eta artean hemengo erregistroan jarri gabe zegoen. Eta jende askori halakoak. Hemen eta kanpoan jaiotakoan arteko borroka sortu nahi dut horiek; eta jakina Gipuzkoa eta Bizkaian asko dira kanpoan jaiotakoak. Guk aurreko hauteskundeetan sakondu egin genuen hori; eta oraingoan ez dugu egin ezer, irabazita zegoela iruditu zaigu. Gure erru handi bat izan da hori, eskeintzen diotena gezurra dela esatea emigranteari. Eta pagatu dugu erru hori.

Eta beste gauza bat. Ez dut sekula pentsatzen kanpoko pertsona bat hona bizitzera etorri arren ni bezala denik. Herbestean bizi izan naizen bitartean nire herritar sentitu naiz beti.

«Ezinezko dirudiena posible bihurtzea, hori da politika, bestea oportunistoa da eta egoeraz aprobeztatzea».

Besteak ere berdintsu izango direla uste dut. Honera etorri zara, hemen egiten duzu lana eta gutarra. Horiek idealismo tontoak dira. Uda iristen da eta milaka joaten dira beren herrietara oporretan. Orain, egoera ekonomikoa ere aldatu da, kanpotik gehiago ez dator eta etorri direnen seme-alabak hemengo eginez joango dira. Urteak behar dira. Eta nik normal jotzen dut. Nik eskatzen diet gehienez ulertzeko gure problema zein den, eta guregan lan egiten badute heuren herrietan ere askatsun gehiago izango dela.

A.-Bukatu berria duzuen kongresoaz azken galdera. Zuen dinamikan kontinuitate bat markatzen al du ala

«PNV-ren indarragatik karlistek espainolera jo zuten. Hemen ere berdin da: abertzale bezala gu bakarrik geratuko gara azkenean».

berrikuntzak datoz? Izan ere, Biltzarreari bukaera emateko aipatu da nola laister izatekoa den ASK-ren Biltzarre Nazionala, LAB-en Konferentzia Nazionala,... KAS-en berregituraketa.

S.B.- Pentsa KAS-en hasiera. KAS sortu zen, jendeak ez daki asko honen gain, gaur ospatzen dugun egunagatik. Txiki eta Otaegi hil nahi zituztela eta Europan sortu zen mugimendu bat «En lucha por la vida de unos revolucionarios». Eta herbestaturik geundenoi popatik ematen zigun borroka horrek: «por unos revolucionarios vascos!» esaten genuen guk. PC-ek erabiltzen zuen mugimendu guzti hura beretzat; eta orduan bildu ginen KAS-eko indar guztiak, eta horretarako sortu zen.

Handik eztabaida mahai izatera iragan zen eta geroago erabaki mahai izatera. Gero Bloke Zuzendari izatera. Heldu da une bat horri egitura bat emateko, estatuto batzuk, eta hau da momentua. Hor dago «KAS Bloque Dirigente» ponentzia eta hori ez da HASI-rentzako bakarrik, beste erakunde guztiak ere ontzat eman dute. Orain bakoitzak aplikatuko dio bere organizazioari. Ez da, beraz, bide berri bat hartzea, orain arte egin duguna finkatu eta hobeto bideratzea baino.

Kongresuaz dena dela beste zerbait ere esan nahi nuke. Batek baino gehiagok pentsatuko zuen nola linea ofizial bat egon, eta ofizial ez den bat nola agertu ez den. Disidentzia mugimendu batez ere, zurrumurrak zabaldu zituen ajentzia batek. Lau urte hauetan agertu da hain konforme ez zegoen jendea eta geldi-geldika baratu egin dira. Zergatik? Egoera latza izan delako. Horregatik beste gauza batzuegatik batzu joan egin dira eta orain ez da egon bide bigunagoren bat edo defendi zezakeen linearik. Batzu banatu diren heinean guk koerentzian irabazi dugu. ■